

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Nagua Alba, Podemos:
"Gure kulturaren eta
gure hizkuntzaren
defentsan aritu nahi
dut"

2016ko urtarrilaren 8a, 465 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

NAGUA ALBA, PODEMOS ALDERDIA

2016ko Udal aurrekontua onartzeko alderdi abertzaleen arteko akordioa

Andoainen onartuko diren lehen aurrekontuak izango dira, 2012az geroztik.

Abenduaren 29an EH Bildu eta EAJ-PNV alderdiek 2016ko Udal aurrekontua onartzeko aurre akordioa lortu zutela iragarri zuten, prentsa ohar bidez. Okerrik ezean, beraz, urtarrilaren 28ko Udal bazteraldian aztertu eta onartuko dira, bi alderdien botoen baturak gehiago osoa ahalbidetzen baitu. Ikustear dago datozen egunetan oposizioan dauden gainerako alderdiek (PSE-EE, Ganemos, Irabazi) ekarpenak egiten dituzten alaez, eta bozketan zein jokabide hartuko duten. Aurrekontuak



Inbertsioak eta ur azpiegitura berrieza akordioaren ardatz nagusiak izan dira.

onartzea garrantzia handiko kontu bilakatu zen Andoainen, 2012az geroztik luzapen egoeran baitaude. Aurreko agintaldiaren lehen urtean adostasuna lortu zen, baina geroztik

EH Bilduk ezin izan du oposizio alderdiren oniritziarik eskuratu. Ekainaz geroztik agintaldi berria abiatu da, eta oraingoan EH Bilduren eta EAJ-PNVren arteko negoziat

"Aurrekontuaren ardatz nagusien artean, lau urtetan ur hoditeria berritzeko plana jasotzen da eta baita beharrezkoak diren inbertsioak egtea ere"
EH Bildu-EAJ

zioak ondo bidean doaz. Azpiegitura mailako akordioak ardatz hartuta, akordio nagusia iragarri dute: "Aurrekontuaren ardatz nagusien artean, lau urtetan ur hoditeria berritzeko plana jasotzen da eta baita beharrezkoak diren inbertsioak egtea ere".

Akordio horren arabera, milioitik gorakoa izan daiteke 2016an ur hoditeriaren berrikuntzan inbertituko litzatekeena.



Hilaren 12an Basteron

Datorren asteartean "Heriotzaren triangelua" ikus-entzunezkoa eskainiko dute Basteron, iluntzeko 19:00etan hasita. Bertan Trantsizio garaian eskualdean izandako hilketak aztergai dira. Besteak beste, Upategi baserriko Joxe Ramon Ansarena eta Antzizuko Xabier Ansarena.

[ESKUALDEA, 6-7 ORRIALDEAK]

Urnietako mendi lasterketa

Urnietako mendi lasterketak arrakasta handia izaten jarraitzen du. Urtarrilaren 1ean izen-ematea martxan jarri eta ordu gutxira, dozenaka ziren izena emandako partaideak.

[AZKENA, 16. ORRIALDEA]

Aurrekontua onartuta

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

San Silbestre lasterketa bi herrietan



Urnietakoa hirugarren edizioa izan zen. Argazkiak 14. orrialdean ikusgai.



Andoingoa lehen edizioa izan zen. Argazkiak 15. orrialdean ikusgai.



ELEBERRIAREN AURKEZPENA

EGILEA:
Mikel Atxaga

AURKEZLEAK:
Peio Esnal,
Elixabete Garmendia
eta Xabier Lasa.

Joxinixio Etxeberria,
Andoingo bertsolari eta gudaria
protagonista duen eleberria

Urtarrilaren 14an,
19:00etatik aurrera.

ANTOLATZAILEAK



EAJ-PNV ALDERDIAK AURRERA ATERA ZITUEN 2016KO UDAL AURREKONTUAK

Aurrekontua onartu zuten urteko azken batzaraldian

Abenduaren 22an ez ohiko plenoan 2016ko Udal aurrekontuak eztabaidagai izan ziren Urnietako udaletxean. EAJ-PNVk proposaturikoa gehiengo osoz aurrera atera zen, EH Bildu eta PSE-EE alder-

dien aurkako bozkarekin. 2016koak, 2015ekoarekin alderatuta, %5eko igoera izango du. Denera, 9 milioi euro pasatzeko aurrekontua.

Mikel Pagola alkateak xehetasun nagusiak eskaini zituen. Aurrekontuaren betetze maila ikusteko aukera hilean behin izango da. Udalak korporazioko kideen esku (eta herritarren esku webgunearen bidez) utziko du informazio hori, hilean behin berrituko dena. 2016an lan egiteko moduetan berrikuntza nagusia iragarri zuen, parte hartzearena. Udalaren hiru sail nagusietan parte hartzearen filosofia txertatu nahi dute. Eta, besteak beste, aipatu zituen auzoz auzoko parte hartze prozesuak edota aurrekontu parte hartzaileak sustatzea. Udal aurrekontutik kanpo dauden lau milioi euroko soberakina zertan inbertitu erabakitzeko parte hartze prozesua zabalduko dutela ere iragarri zuen.

Nagusiki, horietan izan ziren argudio nagusienak.

SOZIALISTEN ARGUDIOAK AURKAKO BOTOA IRAGARTZEKO

PSE-EEK azken aldi honetan ohi duen bezala, goitik behera kritikatu zituen jeltzaleen proposamenak. Eurek bere garaian Udal hauteskunde programatik hartutako 60 neurri proposatu zituztela adierazi zuten, eta jaramonik ez zaiela egin salatu. Hori dela eta, aurkako bozka iragarri zuten. Sozialistei erantzunez, Maribel Vaquerok sozialistei zehazta-



Udalaren hiru sail nagusietan parte hartzearen filosofia txertatu nahi dute.

Udal aurrekontutik kanpo dauden lau milioi euroko soberakina zertan inbertitu erabakitzeko parte hartze prozesua zabalduko dutela iragarri zuen

sun eza leporatu zien. 60 neurri horien azalpen ekonomikorik ez zegoela eta, jarrera aldatzeko deia luzatu zien. Gobernu taldearen kontrolatzaile baino gehiago, proposatzaile izateko gonbitea luzatu zien.

EH BILDUREN AURKAKO BOTOA
Plenoan bertan eta ohar bidez

zabaldu duten komunikatuan gobernu taldearen jarrera kritikatu zuten: "Aurrekontu-proposamena jaso ondoren, EH Bildutik gobernu taldeari proposamen zehatzak egin genizkion eta hasiera-hasieratik baztertu dizkigu, eztabaidatzeko inolako borondaterik adierazi gabe". Arrazoi zehatzak adierazi zituzten, besteak beste, etxebizitza sozialak martxan jartzeko plan zehatzik ez izatea edota Babiloni-Ikastolako eraikinerako jarrera aktiborik ez izatea. "Hondakinen inguruan hartutako konpromisoa betetzeko eskatzen jarraitzen diogu EAJri, eta akordatuak %65eko birziklapen tasara iristeko neurriak hartzeko". Horiek eta gehiago izan ziren EH Bilduren kontrako botoa iragartzeko arrazoiak.

Gobernu taldearen izenean, Vaquerok kritika peioratiboak egitea leporatu zien EH Bildukoei.

Aurrekontuak, beraz, aurrera atera dira gobernu taldeko kideen aldeko botoarekin. Oposizioa bi alderdiak aurka agertu ziren. Denek ere eraginkor eta eraikitzaile izateko jarrera hizpide izan bazuten ere, gaur gaurkoz elkarren artean urrun daudela dirudi.

AURREKONTUAREN ILDO NAGUSIAK

Antolaketa, Lurraldea eta Herritargoa dira Udalaren antolaketa berriaren adar nagusiak. Aurrekontua, beraz, hiru atal nagusi horietan sailkatuko dute. Ildo eta printzipio nagusiekin batera, Urnietako alkateak aurreikusiko diren inbertsioak nabarmendu nahi izan zituen. Kopurua milioi bat eurokoa izango da, bereziki Pintore eta Lizardi kaleetako ur hoditeria sarea berritzeko, landa nahiz herri bideak konpontzeko eta haur-parkeak hobetzeko. Aurrekontuaren ildo nagusiak hauek dira:

- "Hilero egiten den batzorde informatiboetan Antolakuntza ataleko batzordekideei Udal aurrekontuaren betetze-mailari buruzko informazioa eskainiko zaie. Era berean, Udaleko webgunean ere txertatuko da informazio hori, herritar guztiek bere berri eduki dezaten".
- "Udaleko lansail desberdinetan dauden erroken aurre egiteko, langilegoak beharrezkoa duen formakuntza plana eskaintzen jarraituko dugu. Guztia, herritarrei kalitatezko eta hurbileko zerbitzu bat emateko helburuarekin".
- "Garrantzitsua izango da herriaren benetako partehartzea bermatzea. Udaleko hiru sail nagusien jardunean oinarrituko ekintza ildoak bihurtuz, auzoz auzoko eta aurrekontu partehartzaileak bermatuz".
- "2016rako eta legegintzaldirako erroka nagusienetakoa izango den inbertsio estrategikoen partehartze prozesua amaituko dugu. Aurrekontutik kanpo, Udal gerakinean dauden lau milioi euro gutxienez erabiliko ditugu herritarrek lehenetsiko dituzten proiektu estrategiko horiei aurre egiteko".
- "Genero ikuspegiari garrantzia eman nahi diogu. Urte honetan garatuko dugu bigarren Berrdintza plana".
- "Gizartekintza sailak erroka berriei erantzun beharko die. Indarrean sartu den gizarte zerbitzuen karta berriak, administrazio desberdinei aurreikusitako zerbitzuak emateko ardurari aurre egiteko konpromisoa hartzen dugu".

- "Eskualdeko garapen agentzia beharrezkoa ikusten dugu. Enplegu-sustapena, garapen ekonomikoa... bakarrik aurre egin ezin diegun eskuduntzak izanik, ahaleginak egin behar ditugu eskualdeko udalerrien arteko akordio sendo bat bultzatu eta garapen agentzia sortzeko".
- "Sustapen alorrean nabarmentzekoak dira Donostia 2016 rekin sinatuko ditugun lankidetzak hitzarmenak, Urnietan bertan Txirrita izeneko antzezlan edota dantza ikuskizun berri bat garatzeko".
- "Etxe barruan eta administrazioan euskararen presentzia handitzeko eta sendotzeko programen aldeko konpromisoa hartzen dugu".
- "Nerabeen aisialdi-premien inguruko lanketa bat egingo dugu".
- "Elkarbizitza, bizikidetzak herrian lantzen jarraituko dugu Baketik-ekin izenpeturiko hitzarmenaren bidez, bakearen eta giza eskubideen kulturari buruzko programak garatuko ditugu".
- "Plan Orokorraren garapena bultzatzen jarraituko dugu. Lehentasun moduan, Babiloniko eremuaren garapena ekintza ildo nagusia izanik".
- "Langardako auzoaren konponbidearen prozesuan, partzela batzuetan egin beharrezko aktuzio batzuei aurre egiteko beharrezkoa izango den diru kopurua Udal gerakinetik bideratzeko gure konpromisoa adierazten dugu".
- "Bestalde, Agenda 21aren programan dauden lau milioi euro gutxienez erabiliko ditugu herritarrek lehenetsiko dituzten proiektu estrategiko horiei aurre egiteko".
- "Aurrekontua osatzeko ez dugu zorpetzera jo. 2016aren hasieran zorpetzea % 0,68koa izan da".
- "A17 eremuko garapenaren aprobetxamendu gisa eskura genezakeen %15eko diru sarrera ez da aurrekontua egiteko kontutan hartu. Diru hori eskuratzean, etxebizitza sozialetarako bideratuko dugu".



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

“JOXINIXIO GUDARIA” ANDOINGO BERTSOLARI ETA GUDARI BATEN IBILERETAN OINARRITUTA DAGO

Mikel Atxagaren nobela, hil osteko altxor bizia

36ko Gerran hil zen Joxinixio Etxeberria Andoingo gudariaren bi- zipenak kontatzen dituen nobela argitaratu du Auspoa sailak. 2009an hildako Mikel Atxaga urnietarra izan da bere egilea. Euska-

ra zoragarrian idatzita, azkar batean irakurtzen den nobela dela adierazi du Joxemari Iriondo Auspoako kideak. Liburuaren aurkezpen ekitaldia urtarrilaren 14an izango da, Basteron.

Zer topatuko du irakurleak nobel- lan?

Joxemari Iriondo: Euskara harri- garrian, bikainean idatzitako nobela laburra da. Bi iluntzetan irakurtzen dena; historiaren mamiak zein kontraerak, biak ere bizitasuna ematen baitiote nobelari. Aproposa izan daiteke euskaltegi eta ikastetxeetako ikasleei gomendatzeko. Baserri giroko hitzak sartzen ditu zen- baitetan, baina testuingurua kontuan hartuz gero nahiko erraz uler daitezkeenak dira. Politikoki ez da zuzena izango, baina esango nuke gaur egun euskaraz idazten diren zenbait nobela baino irakurterragoago egiten dela hauxe.

Benetan bizi izan zen andoaindar baten gora-beheretan oinarritzen da.

J.I.: Erreal den historia konta- tzen du, bai, Andoingo Merdi- legi baserriko semea zen Joxini- xio Etxeberriarena. Hitzaurrean Atxagak berak aitortzen due- nez, ondo dokumentatu zen no- belak idazten hasi aurretik. Ur- nietako Iñaki Alkainek idatzita- ko *Gerrateko ibillerak* izenbu- ruko hiru liburuez, Andoingo historia liburuez eta beste hain- batez baliatu zen, Andoingo eta kanpoko pertsonak, bertso- larien kontuak eta gerrako ego- erak deskribatzeko.

Gudari euskaltzale, jeltzale eta sinisdun baten ibiliak eta pentsamendua ditu ardatz no- belak. Mikel Atxagak ez du ez- kutatzen ideologia hori, eta zint- ztoa da alde horretatik.

Elixabete Garmendiak hitzaurre- an dioenez, Urnietan Atxaga fami- lia bando irabazlean kokatu izan zuten beti. Horrek bultzatu ote zuen nobela hau idaztera?

J.I.: Maiz entzun izan genion horixe lagunarteko bileratan, bai. Baina zera eranstean zuen gero: “*ni galtzaileekin gehiago identifikatu izandu nauk beti*”. Baliteke arantza sartuta eduki- tzea, eta galtzaile baten ikuspe- gia biltzen duen nobela idaztera



Joxemari Iriondo Auspoa argitaletxeko arduradunetakoa da, gaur egun.

bultzatu izana horrek. Ez nuke ziurtatuko, hala ere.

Zazpi urte dira Mikel Atxaga zen- du zela. Nobela berak etxean-edo utzita paperen artean azaldu al zaizue?

J.I.: Ez. Osasunez nahiko patta- l zebilen garaian, astero eduki- tzen genituen bileretarako bate- an, CD bat eskuan zuela agertu zitzaigun, esanez: “*gaur edo*

bihar nahiko bazenute nobela kaxkar bat argitaratu, hemen daukazue. Laburra dek”. Urte- an bost bat liburu kaleratzen ditugu Auspoa sailean, eta Atxagaren idatzia hortxe ze- rrendan eduki ostean, iritsi zaio argitaratzeko txanda azkenean. Pena dauka bizi zen artean ezin eman izanagatik argitara- tzearen poza, baina oso azkar joan zitzaigun. Jada oso makal

zegoen Miramarren eskaini zi- tzaion omenaldian, 2009ko api- rilean.

Atzera begira jarrita, nola gogo- ratu beharko genuke Mikel Atxa- ga?

J.I.: Euskaraz idazteko errazta- suna eta jatortasuna zuen. Ka- zetaria zen ezereen gainetik, ofizio hori zuen maite. Aspal- di, Lintzirinen ETAk egin zuen bilera famatu bat zela eta, Es- painiako prentsan zera idatzi zen: “*si hubo periodistas, no profesionales*”. Atxagak hone- la erantzun zion: “*periodistas de carnet no, pero si de traba- jo*”. Zeruko Argia aldizkarian aritu ostean, Deia egunkarian jardun zuen asko, Martin Ugaldek hara eraman eta gero. Euskal kazetari bikaina izan zen, eta hori aitortu izan zi- tzaion bizirik zela Rikardo Arregi eta Argia merezimendu sariekin.

Bestalde, Euskaltzain urgazle gisa ere egin zuen lan franko. Testuak euskaratzen ere ez zen nolana ibili, eta horren froga da Pagolaren *Jesus: hurbilketa historikoa* liburu famatuaren itzulpena.



Mikel Atxaga zena, San Juan plazan.

“*Gudari euskaltzale, jeltzale eta sinisdun baten ibiliak eta pentsamendua ditu ardatz nobelak. Mikel Atxagak ez du ezkutatzen ideologia hori, eta zintztoa da alde horretatik*”

Zertan da Auspoaren osasuna?

J.I.: Bost bat liburu kaleratzen ditu urtero, lehen esan bezala. Oraintxe esku artean dauzkagu- nak, Pello Esnañen eta Antonio Zabalaren saiakera bana dira. Bestalde, Hauspoa azpi-saila abian jartzekotan gara; bilduma- ko zenbait liburu euskara batura eraman ostean berrargitaratzen joango gara. Sebastian Salabe- rriaren *Neronek tirako nizkin* izango da lehen alea. Nork daki Antonio Zabala zenak zer pen- tsatuko ote zukeen berrikuntza horrexegatik, baina ideia ona de- lakoan gaude, bere garaian arra- kasta izan zuten zenbait idazlan euskara batuan nahi duen irakurlearen esku jarriko baititugu, ikasle gazteen eta euskaltegieta- ko ikasleenean batez ere.

Gutxietsiak izan dira iraganean Auspoako idazle eta liburuak...

J.I.: Bai, hala izan da, baina ikuspegi hori irauli dela esango nuke. Antonio Zabalaren lana eta herri literatura estimatzen hasi dira azken aldian. Auspo- aren ekina zaharren kontutzat hartu izan da, baina garai ho- riek atzean utzi eta Zabala ka- sik mitotzat jotzera iritsi gara gaur egun. Txirritaren bertso- tan agertzen diren “aita eter- noa” eta antzeko esakeragatik, “hori ez dek euskara” esan izan da maiz. Zabalak, beti erantzun ohi zuen berdin: “Konforme, baina holakoxea izan dek herri honen aho hizkera gurean”. Za- balaren pentsamendu hori az- kenean onartu dela uste dut.

Nolana ere, 130 harpide- dun baizik ez ditu. Horien ar- tean apenas dagoen bertsolari- rik, eta horrek zer pentsatu eman beharko liguke.

ZAZPIGARREN URTEZ JARRAIAN, IÑISTORRA ELKARTEAREN ESKUTIK

San Tomas eguneko postalak

Zazpigarrenez jarraian, Santomas egunean jendetza bildu zen Kontzejupean. Errotaburuk irabazi zuen Usadiozko sagardo lehiaketa, eta tarta onena Amaia Lopezena izan zen. Berrehun talotik gora sal-

du ziren, eta baita txistorra pintxo ugari ere. Bertaratutakoek sagardo lehiaketara eramandako botila guztiak edan zituzten. Kontsumoekin jarraituz, hogeiki kilo gaztain banatu ziren.



Errotaburukoa izan da aurtengo irabazlea Usadiozko zazpigarren sagardo lehiaketan.



Sagar tarta lehiaketan Amaia Lopez izan zen irabazlea, Mari Karmen Zubeldiaren aurretik.



Guriako gazta kinielaren asmatzailea Iñigo Gomez "Kali" izan zen. Gastaren pisua, 1.695 gramo.



Eguberrietako saskiaren zenbaki sariduna 2157 izan zen. Garailea bertan zen, Pili Brandariz.

Urtero bezala bertaratutakoek giro herrikoan baserrietako sagardoa dastatzeko, eta ohiko diren taloak, txistorra eta gaztain erreak jateko aukera izan zuten bertaratutakoek, herriko trikitilari gazteek alaitutako giro atseginan. Zortzi parte hartzaile izan zituen sagar tarta lehiaketa, eta guztien artean **Amaia Lopez** izan zen irabazlea, **Mari Karmen Zubeldiaren** aurretik. Eguneko ekitaldirik garrantzitsuena den Usadiozko sagardo txapelketan, hamaika baserrik parte hartu zuten, eta guztien artean **Errotaburu** baserriko sagardoa nabarmendu zen 93 puntu lortuz. Bigarren

posturako berdinketa izan zen, 87,5 punturekin, eta bigarren dastaketaren ondoren erabaki zuten bigarren postua **Saurdei** baserriari ematea. Hirugarrena **Montefrio** baserriko sagardoarentzat izan zen. Ondoren, **Milluts** eta **Goikoetxe** sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Urteroko moduan gaztaren kiniela egiteko aukera izan zen. Gazta horiek, aurreko egunetan **Kantoi** eta **Guria** tabernetan egoten dira, eta bezero ugari animatzen da kiniela betetzera. Aurten, Kantoiko gazta Hernanira joan da, bertako Gorosti izan baitzen pisu zehatza (1.315 gramo) as-

matu zuena. Guriakoa, berriz, "Kali" herritarrek etxeratu zuen, asmatetik bost gramora geratu ziren bera eta "Penfol", (1.695 gramo) eta bien arteko zozketan garaile suertatu zen.

600 eurotan baloratutako Gabonetako saski ederraren irabazlea **Pili Brandariz** izan zen. Sagar do lehiaketako botilaren enkan-tean 10 euro ordaindu zen txapel-dunaren botilagatik.

Iñistorra elkartearen eskertza: Udala, Kantoi eta Guria, Muazpi, sagardogileak, sagar tarta egileak, talogileak, gaztain erretzaileak eta egun horretan bolondres lanean aritu ziren guzti-guztiak.



Hogeki kilo gaztain banatu zen eta lan horretan fin aritu zen Andoni Garmendia.



Joxe Mari Iturbe, Aingeru Altuna, Mikel Izagirre, Laura Martinez, Koldo Tapia eta Pili Lasa izan ziren Usadiozko zazpigarren sagardo lehiaketako epaimahaiaiko kideak.



Fran Bravo, Petra Elser, Amaia Usabiaga eta Angeles Sanchez seigarren sagar tarta lehiaketako epaimahaiaiko kideak izan ziren.



Plazara eramandako botila guztiak agortu ziren. Taloaren eta txistorraren osagai egokia izan zen.



Talogileek lan bikaina egin zuten, urtero bezala. 200 talotik gora saldu zen San Tomas egunean.

Mitologia, aurtengo inauterietako gaia

Inauteriak iristear dira

Azken bost urteetan egin den moduan, aurten ere urnietarrek herritik irten gabe inauterietan parte hartzeko aukera izango dute.

Gabon jaiak atzean geratu diren honetan, mozorroak prestatzeko garaia iritsi da. Aurtengoan otsailaren 6an, larunbatarekin, ospatuko da Inauteri eguna. Hasierako urteetan Poxta Zahar elkarteak izan zen jai honen antolatzailea, baina, urtez-urte elkarte gehiago dira antolakuntza la-




lazo inauterietako irudia.

netara zein parte hartzera animatzen direnak.

Azaroren 17an egindako jai batzordearen bilera irekian, aurtengorako proposatutako gai ezberdinak bozkatu ziren, eta gehiengoz "Mitologia eta pertsonaia mitologikoak" bere zentzurik zabalenean izan zen aukeratutako gaia.

Hilabete eskas geratzen da inauterien ospakizunerako. Ideiak landu, mozorroak prestatu eta inauteri gosea pizteko tarte zehatza.

INUXENTE EGUNeko ALBISTEA



"Urnietan urte berriko kanpaikadak 2:45etan joko dituzte" izenburupean, txantxaz albistea argitaratu zen Aiuiri.com webgunean: "Urnietan dena prest dute, baita ordua ere. San Juan plazan goizaldeko 2:45etan sartuko dira urte berrian. Entsegua eta guzti egin dute". Albisteari lotuta, bideo-muntaia egin zuten.

Aurreko ostegunean egin zuten Lekaion, Udalak deituta

Inbertsio estrategikoak erabakitzeke bilera irekia

Aurreko ostegunean, urtarrilak 7, Lekaion bilera irekia egin zuten. Urnietako Udalak ohar bidez adierazi zuenez, ekitaldia deitu zuen "legegintzaldi honetan herritarrek Udalarekin nola parte har dezaketen azaltzeko. Alde bate-tik, legegintzaldi honetan herritarren parte hartzea susta-

tzeko abian jarriko diren mekanismoak xehetuko dira. Eta bestetik, legegintzaldian egingo diren inbertsio estrategikoak herritarrekin batera erabakitzeke jarraituko den parte hartze prozesuaren berri emango da".

Beraz, proiektu handietarako herritarren iritzia kontuan

hartu nahi dute, "Udalak herritarren parte hartzean oinarrituriko gobernu ireki baten aldeko apostua egin nahi du. Horren guztiaren helburua da herritarren iritzia kontuan edukiz elkarlanean oinarrituriko kudeaketa garden eta parte hartzailea aurrera eramatea".

UDAL ANTZERKI TALDEAREN ERAKUSTALDIA SAROBEN



Ostiral iluntzean ehun ikusleren aurrean Udala antzerki talerako kideek erakustaldi aparta eskaini zuten. Lehen hiru hilabeteetan landurikoa erakutsi zuten, ia eszenografiarik gabe gorputz adierazpena landuz. Clown-a erabili zuten, eta baita poesia ere. Kike Santiago zuzendariak partaideen lana eskertu zuen, maila eta inplikazio handia erakutsi zutelako.

Ehiza xehea txakurrarekin, larunbat honetan Adarran

Santa Kruz ehiztari eta arrantzaleen elkarteak herri mailako txapelketa antolatu du, larunbat honetan goizeko 09:00etan hasita Adarra-

mendin. Eguerdiko 13:30ak aldera amaituko da eta ondoren Besabin sari banaketa ekitaldia eta oparien zozketa egingo dute.

Udal ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

Otsailan abiatuko diren Udala ikastaroetan izena emateko epea urtarrilaren 11tik 22ra bitarte luzatuko da, hainbat jarduera ezberdinetan gainera: Argazkilaritza, jostintza 2 jarraipena, jostintza 1 jarraipena, jostintza hastapena, sendabekarrak, puntu eta kakorraz lanak hastapena, makilaia eta zur taila maila ezberdinetan.

Ordaindu beharreko diru kopurua ikastaroaren araberrakoa izango da. Urnietan erroldaduta daudenentzat 60-112,5 euro bitarteko prezioak. 18 urte azpikoek eta langabetuek beherapenak izango dituzte. Ikastaro horiek egiteko gutxienezko parte hartze kopurua zortzi laguneko izango da. Informazio gehiago urnieta.eus webgunean.

Amaitu dituzte lanak



Txoritagain auzoaren sarrera.

Udalak Idiazabal kalean eta Txoritagain auzoan burutu dituen obrak amaitu dituela iragarri du. Idiazabal kalean Mikaelaenea etxearen ondoren dagoen espaloia egokitu dute. Bestalde, San Juan kale-

tik Txoritagain auzorako sarrean dagoen bidegurutzean oinezkoentzako espaloia egokitu dute. Lan hori egitearekin batera, Txoritagain auzoko euri urak biltzeko hoditeria berria txertatu dute.

Denda Berri, urteko batzarra

Urtarrilaren 23an, larunbatarekin, urteko ohiko batzar orokorra deitu dute.

17:30ean hasita, iazko balantzea eta aurtengo aurrekontua hizpide izango dituzte.

Eguberrietako mus txapelketa



Irabazleak dagozkien sariekin.

URTARRILAK 12, ASTEARTEA. 19:00. BASTERO

"HERIOTZAREN TRIANGELUA" IKUS-ENTZUNEZKOA ESKAINIKO DUTE ANDOAINEN

"Urte luzez beldurrez bizi izan ginen denok inguruotan"

Joxe Ramon Ansa Etxeberria gaztea, Upategi baserrira zihoala (Burruntza auzoa) 1979ko maiatzaren seian, atzeman eta Azkonobieta baserri inguruan erail zuten.

Ultraeskuindarrek Hernani eta Andoain bitartean eraildako zazpi pertsonetatik lehenbizkoa izan zen. Imanol eta Isidro anaiek Aiurri berritu dizkiote gertakizun haiek.

Nola gogoratzen duzue anaia?

Isidro Ansa: 17 urteko gaztea zen; isila eta serioa, oso arduratsua bere adinerako. Gu, 15 eta 14 urtekoak, anaia txikiak ginen eta hazita zegoen mutila ikusten genuen hura. Senideetan zaharrena, berriz, arreba dugu. Familiarren artean "Upategiko mutikoskorra" zen Joxe Ramon. Ez zen inorekin sartzekoa, eta ezker abertzaleko sinpatizantea izango zen, baina hura ez zen politikan sartu sekula.

Imanol Ansa: Aita lantegian aritzen zen eta lau senideek laguntzen genion baserriko lanetan; Joxe Ramonek bereziki, traktoreekin-eta. Axindegiren lantokian (gerora Mendiola) hasi zen lanean eta mobilette motoa erosi zuen lehenbiziko irabaziekin. Goikoetxea, Olazabal... asko ziren bere koadrilakoak, eta kalean biltzen ziren denak. Haiengana jai arratsalderen batean joan, eta motorik gabe itzuli zen etxera. Aitari etxean errezeloa geratu izan zitzaion gerora, lapurretarekin ez ote ziren hasi prestatzen hilketara...

Izua zabaldu zen Andoainen zuen anaiaren hilketarekin batera. Nola gogoratzen dituzue egun haiek?

Imanol Ansa: Anaiarena izan zen larriena, baina luzea da gertakizunen zerrenda, aurretik eta ondoren. Kaletxikiko eremuan Ontza elkarteari tiroketak, Kooperatiba eta ardoteigiko kamioien erreketak... Eta horiez gain, baserri giroan ere, akzio ugari izan zen baserriaren aurka. Batzuk trantzeak kontatzera ausartu egin ziren; beste batzuk, osterara, isilik pasa zituzten. Anaztegiko eta gure baserriko metak erre zituzten, eta ondoko baserri bateko bi anaiek eskapada ederra egin zuten; batek, auto bat segika zuela igarri, eta korrika egin zuelako libratu zen. Bestea, autora sartzera behartu zuten pistola zeramaten bi lagunek beste gau batean, baina horretan ari zirela, pertsonaren bat sumatu inguruan, eta ihes egin behar izan zuten.



Isidro eta Imanol Ansa anaiak Joxe Ramon anaiari buruzko oroitzapenak eskaintzeko bildu ziren Aiurriekin.

Isidro Ansa: Urtetan bizitu behar izan genuen beldurrekin; guretzat bakea ez zen etorri Iturbide eta Zabala atxilotu zituztenean. Guretzat ia normalak egin ziren autoetan sartuta etxe inguruan zelan egoten ziren sekretak. Autoa gidatzeko adinean sartu ginenez geroztik, berriz, guardia zibilen kontrolak egin ziren guretzat beldurgarriak. Noiznahi gerarazi errepidean, eta anaiaren inguruko galdeketa egiten ziguten. Burura zetorkien edozer esaten ziguten: "algo haría vuestro hermano para que lo mataran, ¿no crees?". Antzekoak eta okerragoak entzun behar izaten genituen maiz; niri pistola burura apuntatuz jarri izan zidaten. Horrelako tratua, 12-15 urtetan bai. Gainera, garaitsu hartan, gu bezala Ansa Etxeberria abizenak zituen lehengusu batek ihes egin zuen Iparraldera, eta harengatik ere hasten zitzaizkigun galdezka, gure anaia zela pentsatuz. Ez zuten lortu gu etxera erretiratzea, hala ere; kalera ateratzekoak izan gara beti, eta beldurra sentituz hazi garela esan daiteke.

Nola eraman izan dute gurasoek semearen galera?

Imanol Ansa: Anaiarena gertatu

"Iruditzen zaigu gurasoek ez zutela semearen heriotza sekula gainditu. Aita negarrez hasten zen etxean Joxe Ramon aipatu orduko"

zenez biok gazte samarrak ginen; adin horietan ez zara oso kontziente zer gertatu den, eta, errazago egiten zaizu gainditzea. Beste gauza da gurasoei dagokiena. Urtetara jabetu izan gara gurasoek sufritu zuten atsekabea, hil ziren arte joan ez zitzaienta. Gurasoek eta familia-ko izeba-osabek inoiz Joxe Ramonen hilketara gainditu ez zutela iruditzen zaigu. Aita, esate baterako, negarrez hasten zen etxean Joxe Ramon aipatu orduko. Gauzez lehen loa egiten zuten, baina gauerdiko esnatu berriro, eta seme-alaben gelara abiatzen zen, ea denak etxean ginen ikusteko. Baten bat falta bazen, hark ez zuen gehiago lorik egingo, ederki sufrirituz.

Hiltzaileak atxilotu eta epaituak izan ziren...

Imanol Ansa: Zabalaren amaren autoarekin ibiltzen ziren alde

batera eta bestera; haiek nahi zuten bezala ibili ziren jendea akabatzen, eta Javier Ansarena egin zuten, beren azken akzioa izan zena, lekukoak utzi zituzten nonbait, Kraffeko langileak-eta. Oso agerikoa egin zen kontua, haien ibilaldiak jada ezin ziren estali, eta hor moztu behar izan zuten goitik. Aurreratu ziguten Piti eta Zabalarekin hasi eta bukatuko zela ultraeskuindarren tramaren inguruko ikerketa, eta halaxe gertatu zen.

Oroitarria dago Joxe Ramon hil zuten tokian, Xoxokako bidean. Familiak jarrita?

Isidro Ansa: Bai, gurasoek gurtzea jarri zuten lehenbizi, baina kendu egin zuten agudo. Orduan oroitarri bat jarri zen, baina hura ere txikitu egin zuten mazo batekin jota. Bigarren oroitarria jarri, eta haretzek segitzen du.

Zuek ez zarete komunikabideetan-eta agertu zaleak izan...

Isidro Ansa: Bere garaian Udalak mozioa onartu zuen eta kalean protestak-eta egin ziren, baina gurasoek dinamika horretatik kanpo geratu nahi izan

zuten. Inongo instituzioren babesik ez zen jaso, baina inor ez zen guregatik gaizki esaka jardun. Amnistiaren aldeko gestorek omenaldi ekitaldiak antolatu izan zituztenean Santa Kruzetan, gurasoei ez zitzaion gaizki iruditzen hura, nahiz eta ez parte hartu.

Gurasoek sekula ez ziguten gorrotorik transmititu; bai, ordea, samina eta oroitzapena bezalako sentimenduak. Alde horretatik, gurasoek hartu zuten jarrera hori guztia errespetatu egin dugu, eta asmatu egin dugula uste dugu. Ez dugu biktimismoaren bidetik jo.

Zer iruditu zaizue dokumentala?

Imanol Ansa: Zalantzak izan genituen testigantza eskatu zituztenean, baina aurrera egin genuen, gure lekukotza eman genuen, eta muntatu zutenean familia guztiarentzat ikustaldi berezia antolatu zuten. Mese-degarria izan dela iruditzen zaigu. Seguru gaude gurasoek gaizki pasako zituela, baina baita onartu ere lagungarri izan daitekeela gertakizunak herrian jakinarazteko eta Joxe Ramonen oroimena bizirik mantentzeko.

Biktimengan jarri dira begiak azken urteetan, lehen ez bezala...

Isidro Ansa: Gauzak aldatzen ari dira bost bat urtetik hona, bai. Hitz egiteko beste lasaitasun bat daukagu geuk, eta ohartzen ari gara on egiten digula horrek.

Imanol Ansa: Eusko Jaurlaritzak Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko artxiborako grabazioak egin ditu gu bezalako senideen testigantzak jasoz eta ikastetxeetara ere joaten hasiak dira gu bezala, senideren bat biktima izan dutenak, haurrei gertatutakoa kontatzera. Horrelako ekintzek erakusten dute hala dela, begiak biktimengan jartzen ari direla orain, garai batean ez bezala.

URTARRILAK 12, ASTEARTEA. 19:00. BASTERO

"HERIOTZAREN TRIANGELUA" IKUS-ENTZUNEZKOA ESKAINIKO DUTE ANDOAINEN

"Beldurra zabaldu nahi izan zuten, errugabeak erailez"

Xabier Ansa Zinkunegi 1981eko martxoaren 3an hil zuten ultraeskuindarrek Krafft lantegi parean. Erramunek bere anaiaren nortasunaz gain, garai hartako gertakizunak hartu ditu hizpide Aiurri

astekariari eskainitako elkarrizketan. Bere ustean, Buruntzaldean hiltzaileek ezarri nahi izan zuten izuaren estrategiaren biktima izan zen anaia.

Nola gogoratzen duzu Xabier, anaia?

Erramun Ansa: Bost senide ginen, eta "Antzizu" basetxean (Leizotz bailara) jaio, hezi eta bizi ginen gurasoekin batera. Ni nintzen adintsuena, Xabier gazteena. 36 urteko mutila zen Xabier, oso apala, atsegina, zentzuduna eta borondate onekoa; senideetan zintzoena zalantzarik gabe. Ez zen oso festazalea, bai erretira onekoa! Lantokian ere, fin aritzen zen horietakoa.

Politikoki, ez zuen zerikusirik inongo alderdiekin. Euskal kultura eta ohituren zalea zen, eta gogoko izaten zuen bertsoak eta euskal kondairak irakurtzea. Gogoan daukat maiz hizketan jarduten genuela euskal ohituren inguruan.

Nola bizi izan zenuten bere heriotza?

E.A.: Benetan tamalgarria eta nahigabea izan ziren etxekoentzat. Xabier ofizioz delineaizalea zen eta 15 urte bazeramatzan lanean; maiz, herribusean egin ohi zituen lantokirako joan etorriak. 1981eko martxoaren 3an, goizez, haren zain zegoela, auto bat inguratu zitzaion galderaren bat eginez. Erantzuteko denborarik eman gabe, pistolaz tirokatu egin zuten; errepide bazterrean zerraldo lurrean hilik utzita, alde egin zuten. Aranaztegi baserriko biztanle batek dei egin zidan telefonoz adieraziz anaia istripu bat izan zuela eta lehenbailehen hurbiltzeko bertara. Berehala inguratu nintzen eta han aurkitu nuen anaia bala zaurietatik odola zeriola, hilik.

Ezin nuen sinetsi aurrean ikusten ari nintzena! Mingarria benetan! Lehenxeago etxetik osasuntsu lanera irten zen anaia egoera hartan hilda itzultzea... Nekeza da hitzez adieraztea batek sentitzen duen nahigabea.

Eta hurrengo egunak? Hainbat gertakizun gertatu ziren: udal batzarra, manifestazioak kalean, hiltzaileen atxiloketak...

E.A.: Bai, giro horrek nahiko bu-



Ansa Zinkunegi familiako senideak: Fernando, Mari Karmen eta Erramun. Makurtuta Xabier eta Joxe Gurutz.

1981eko martxoaren 3an, goizez, autobusaren zain zegoela, auto bat inguratu zitzaion galderaren bat eginez. Erantzuteko denborarik eman gabe, pistolaz tirokatu egin zuten Xabier Ansa

rukomin eragin zigun familia-rron. Guztia modurik apalenean igaro nahi genuen; ez geunden iskanbiletarako. Alderdi politikoek protesta ekitaldiak antolatu zituzten, baina gu ez geunden ezertan ere parte hartzeko animoarekin.

Dokumentalean diozunez, ustez hiltzaileetako bat zen Joan Inazio Iturbideren familia hurbildu egin zitzaizuen...

E.A.: Bai, behin baino gehiagotan ere adierazi ziguten familia-koak beraien dolumina eta nahigabea gertatutakoaz, irrati bidez izan zutela erailketaren berri eta adierazi nahi ziguten, beraien errugabetasuna gertakizun horretan. Gure erantzuna zalantzarik gabekoa betidanik izan zen, adieraziz aitortzen genuela errugabetasuna eta gure aldetik

ez zutela inolako mendekurik jasango eta gertatutakoa alde batera utzirik, bakean bizitzen jarraitzeko.

Izan ere, gure arteko adiskidetasunik ez genuen inolaz ere galdu nahi, gertatutakoa bitarteko; izan ere, une honetan bertan nahiago dut eraildakoa- ren senide izan erailtzalearena baino.

Aurretik, andoaindarren aurkako eraso ugari eta 1979ko maiatzeko Upategiko Joxe Ramon Ansa-ren hilketak gertatu ziren. Udalean zinegotzi zinen orduan...

E.A.: Joxe Ramonena gertatu eta berehala, Udalak, mozioa onartu zuen Andoaingo Guardia zibilak izan zirela erailtzaleak antolatu zituztenak adierazten zuena; buruzbide hori ez zen udalkideon iritzi bakarra izan, herritar asko ziren uste berekoak.

Garai hartan, legez, beharrezkoa zen gobernadore zibilar udal agiriak aurkeztea. Antonio Oiartzabal zen hori, ez zitzaion gustatu guardia zibilei buruzko aipamena eta bere bulegoan bildu arazi gintuen Udal kide guztiok. Bota zizkigun erronka eta desafioak dardara sorrarazi zituzten guztioi.

Kaletxikiko bizilaguna zen Iturbide. Zergatik iruditzen zaizu berak eta Zabalak egin zituztenak egin zituztela?

E.A.: Guztia igarota, nire hausnarketa egin nuen asmatzeko zerk bultzatu zion zorigaitzoko bikote horri zazpi erailketa horiek (gure anaia, zazpigarrena) egitera. Garai hartan, ia egunero, bai ETak baita beste taldeek, guardia zibil edo militarren bat erailtzen zuten. Bada, Batallon Vasco Español eta eskuineko komando horien logikaren ikuspegitik, erailketa haiek atzeratzeko bidea eurei beste hainbeste egitea zela uste zuten. Horretarako, herritarrik errugabeenak eta ezagunenak aukeratu zituzten, bai baitzekiten herrian aparteko mina eta beldurra eragingo zutela.

Instituzioek, zuek biktimatzat jo zituztetek?

E.A.: Erantzun zaila dauka galdera horrek. Aipa ditzaket biktima gisa urtetan kontuan hartu gaituzten okasioak. Erailketaren ondorenean Espainiako gobernuaren gutun bat jaso genuen, doluminak eta nahigabea adieraziz. Egunkarrietan ere, aldizka, azaldu ziren antzeko adierazpenak. Garaikoetxea lehendakariak hots egin zigun Eusko Jaur-laritzaren izenean; gero, idatziz, erantzun nion eskerrak emanez. Urte mordo bat geroago, kalte-ordain gisako diru kopuru bat jaso genuen familian.

Justizia egin zela uste al duzu?

E.A.: Zabala zein Iturbide, berehala espetxeratu eta epaitu zituzten. Epaiak, bakoitzari 25 urteko espetxe zigorra eta 500.000 pezetako diru ordaina ematera zigortu zituen. Diruari dagokionez ez dago zer esanik, ordaingaitz azaldu baitziren. Espetxe zigorrari dagokionez, urte ale batzuk Karabantxelen egin ondoren, Mahonera eraman zituzten, eta guk jakin genuenez, han sei bat urte egin ostean, Mahondik ez mugitzeko baldintzarekin, kalera-

"Halako kezka sortzen digu gertakizunak berri-tu behar horrek, baino neroni ere iritzi berekoa naiz: beharrezkoa da ondorengoek jakin dezaten nolakoa izan zen herri honen iragana"

Erramun Ansa

tuak izan omen ziren. Hogeita bost urteak, gehienez zortzi urte bihurtu ziren azkenean. Geroztik, jakin izan denez, Iturbide Artxanda mendi inguruan hilik aurkitu zuten. Zabalaren berririk nik behintzat ez dut eduki.

Gaur egun, iruditzen al zaizu herriko jendeak gogoan daukela orduko gertakizunak eta hildakoen oroitzapena?

E.A.: Baietz esango nuke. Nik inguruan sumatzen dudanez, maiz aipatu ohi dira Andoainen gertatu diren gogorkeriazko gertakizunak.

Dokumentalaren egileek adierazi dute maiz entzun dutela "bazen garaia" komentarioa...

E.A.: Egia mardula hori. Etxean gertatu zaigunoi halako kezka sortzen digu gertakizunak berri-tu behar horrek, baino neroni ere iritzi berekoa naiz: beharrezkoa da ondorengoek jakin dezaten nolakoa izan zen herri honen iragana.

34 urte igaro ondoren, nola oroitzen duzue Xabier?

E.A.: Urte geihegi dira gertaerak gogoan izateko lehenbiziko egunetan bezainbat, eta normala da nahigabea apaltzen joatea. Baina zuk diozun oroitzapen hori guregandik ez da sekulan ahaztuko, bizi garen bitartean. Xabierren jaiotzako eta erailketako urtemugak izan daitezke egun bereziagoak guretzat, ez baitira igarotzen bere argazkiari begirada sakon eta maitakor bat eman gabe, geure artean balego bezala.



Eguberriak Urnietan



Abenduaren 23an Egape ikastolako ikasleek kalejira egin zuten.



Abenduaren 24an Presentacion de Maria ikastetxeokoak eguraldi ederrarekin kantuan aritu ziren.



Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 24an, San Juan plazan.



Haurren eskaerak jaso ahal izan zituzten zuzenean.



Txanbolin txistulari taldeko kideek etorrera alaitu zuten.



Abenduaren 23ko kalejira Urnietan.



Eguberrietako azoka, ikasleen eskutik.



Gabon kantuan Urnietan, abenduaren 24an.



Presentacion de Maria ikastetxeoen jaialdian txikitxoek kantari.



Egapeko antzele gazteek Eguberrietako oporraldiaren atarian antzerki saioa eskaini zuten.



Eguberriak Andoainen



Ondarreta ikastetxeko ikasleak abenduarem 24an, goizeko ekitaldian.



Gabon kantuan irten ziren La Salle Berrozpe ikastetxeko kideak.



Aspaldiko ohitura berritzen da urtez urte.



Goikoplazan jendetza bildu zen abenduaren 24an, eguerdiz.



Presoen aldeko kantu taldea kalez kale aritu zen.



Mari Domingi zain zituen haur eta gazteak agurtzen, Aita Larramendi ikastolak antolatu zuen ekitaldian.



Olentzero eta Mari Domingi Andoainen, laguntzaile izan zuten astoarekin batera.

**Datorren asteko Aiurri,
Jokin Lizeagari elkarrizketa:**
“Nire buruarentzat korritzen dut,
eta askatasun horrek balio
handia du niretzat”

Aiurri





Errege Magoen etorrera

Urnieta



Kalejiran aritu ostean, Errege Magoak eta laguntzaileak San Juan plazara iritsi ziren.

Andoain



Andoaingo haurrek ilusioz hartu zituzten Errege Magoak. Irudian, Zumea plazatik Zumea kalera.



Arratsaldean haurrekin elizan egoteko aukera izan zuten, eta iluntzean Kontzejupean.



Kabalgatan Belengo estalpea ibili zen orga baten gainean.



Baltasar erregea eta haren laguntzailea opariak banatzeko uanean.



Haurren gutunak jasotzen aritu ziren pajeak urteko azken egunean.



Dozenaka haur hurbildu zen San Juan plazara, oparien banaketara.



Olagaineko txistulariak eta dultzaineroak, abenduaren 31n kalejiran jardun ostean.

HAUTESKUNDE OROKORRAK ABENDUAREN HOGEIAN

Andoainen eta Urnietan Podemosek irabazi zueneko

Buruntzaldean, Donostialdean eta Gipuzkoa osoan ezustekoa eman zuten Podemos alderdiak abenduaren 20an deitu zituzten Espainiako Hauteskunde Orokorretan. Gipuzkoako zerrendaburua Nagua

Alba donostiar gaztea da, eta laster Kongresuko diputatu izendatuko dute. Hauexek bere adierazpenak, abenduaren 24an egindako elkarrizketan:

Orain esango didazu igandeko emaitzak espero zenituztela... 316.000 boto Euskadin, horietatik ia 100.000 Gipuzkoan.

Nagua Alba. Oso emaitza onak izan dira, bai. Oso gertuko kanpaina egin genuen, jendearengandik oso gertukoa. Modu horretan galdera askori erantzuna emateko aukera izan dugu, baita proposamen ugari jaso ere. Kanpainaren azken egunetan nabaritzen genuen gure aldeko giro on hori, irribarretsu hurbiltzen zitzaizkigun. Noski, Gipuzkoan lehen indarra izatea ezustekoa izan da.

Zein da zuk egiten duzun emaitzaren balorazioa?

N.A. Aldaketa prozesu batean murgilduta bizi gara, aro bat amaitzen eta beste bati hasiera ematen. Gipuzkoan, zehazki, bi elementu garrantzitsu aipatuko nituzke. Hasteko, eskubide sozialaren defentsa garrantzitsua egin dugu. Gipuzkoan PSOE indartsu dagoen herrietan azken urteetan ez dituzte gauzak ondo egin eta jendeak konfiantza beste alderdi batzuei eman die. Eta, bestalde, lehen aldiz estatu mailako alderdi batek Euskadi eta Euskadin dauden eskaerak kontuan hartu ditu. Euskadiri garrantzia handia eman diogu, nahiz eta hauteskundeak orokorrak izan. Erabakitze eskubidearen inguruan adierazi duguna oso garrantzitsua izan da, batez ere Katalunian bizi izan den esperientziarekin.

Eskubide sozialak eta erabakitze-ko eskubidea, hurrenkera horretan, aipatu duzun moduan, ala maila berean?

N.A. Maila berean jarriko nituzke. Gure mezuarekin oso herri ezberdinetan irabazi dugu: Astigarraga, Arrasate, Eibar, Irun... Bi mezuen artikulazioa ona izan dela esango nuke.

BECen Iñigo Errejonekin batera eman zuten mitinean esperientzia handiko trajedunen anekdota hori errepikatuko al zeniguke?



Nagua Alba gaztea Kongresukide berria, besteak beste eskualdeko botoei esker.

N.A. Tamalez, politikarako eta beste gauza batzuetarako emakumea eta gaztea izatea eragozpen bat da oraindik ere. Gaur gaurkoz gizarte matxista batean bizi gara, eta BECeko mitinean anekdota bat hizpide izan nuen. Politikan ematen ari naizen pausotan trajedun gizonekin topo egin dut eta gaizki begiratu egin naute, arrotz eta deseroso sentiarazi arte. Azkenean deskubritu nuena beldurra euren zela izan zen. Gizon horientzat oso deserosoa da neu hor egotea. Gauzak aldatzen ari diren seinalea da ni euren artean egotea. Eta beldurtu egin dira.

Lortu duzun emaitzarekin aurrerantzean zuekin jende askoz gehiago sentituko da deseroso: trajedunak, EAJkoak eta EH Bildukoak...

N.A. PNVkoak ere gizon eta trajedunak dira! Kar, kar. Egia da Hauteskunde Orokorrek ezberdinak direla, ez dute zerikusirik Foru eta Udal hauteskundeekin. Hauteskundearen arabera botoa ezberdina izaten da, baina noski

dagoeneko aktore garrantzitsu bilakatu gara Euskadin. Indartu egin gara bostakoa da. Protagonista izango gara hurrengo hilabeteetan.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan PSE-EEekin urteko azken batzarraren euskal gatazkaren harira ikamika garrantza izan zuten.

N.A. Sozialistena penagarria da, biktimak erabiltzen dituzte gure aurka jotzeko eta hori ez zait batere ondo iruditzen. Gure alderdiaren baitan gatazkaren esperientzia ezberdinak bizi izandakoak daude. Batzuk alde batean izan dira eta beste batzuk beste alde batean. Niretzat oso polita da espazio politiko berean horrelako aniztasuna izatea. Elkarbizitza eraikitzeke garaian abantaila da hori.

Zein izango da zure lana Kongresuan?

N.A. Nazio aniztasunaren kontuekin aritzea desio dut. Gipuzkoarra naiz eta gure kulturaren eta gure hizkuntzaren defentsan aritu nahi dut. Kongresuan eus-

karaz hitz egin ezin izate hori ez zait batere ondo iruditzen. Horrez gain, gazteen eta berdintasunaren alorretan ere lan egin nahiko nuke.

Kontzertu ekonomikoaz zein iritzi duzu?

N.A. Onuragarria eta solidarioa da. Euskaldunon artean, gainera, onespen maila oso handia du.

Gure eskualdean erraustegia jartzekotan dira. Zein da zuen alderdiaren posizioa?

N.A. Erraustegiarekin txapuza galanta egin da, sekulako dirutza xahutuz. Atzera egin zuten, eta orain berriro martxan jarriko dutela dirudi. Osasunarentzat oso kaltegarria da, eta aztertu beharrekoa. Ez da hain beharrezkoa, Gipuzkoan asko birziklatzen baita. Ondo aztertu beharko litzateke dena, eta azken erabakia hiritarren esku utziko nuke.

Kanpainan Martuteneko espetxearen aurrean presoekin gerturatzeko eskatu zuten...

N.A. Aipatzen duzun ekitaldi horretan bakea eta elkarbizitza buruz hitz egin genuen. Berriak gara, eta Podemosen baitan esperientzia ezberdinak bildu dira. Gure ustez, elkarbizitzaren alde dagoeneko herritarrek aurrerapauso handiak eman dituzte eta alderdi tradizional asko euren arteko ikamikatzen atzean geratzen ari direla iruditzen zaigu. Alderdi horien garaia iritsi da, gizartearen maila berean jar daitezten. Aurrerapauso gehiago eman behar dira, noski. Biktima guztiek errekonozimendua behar dute, eta presoak Euskal Herrira gerturatu beharko ditugu. Dispersioa beste oztopo bat da elkarbizitzarako bidean.

Erabakitze eskubidea defendatzen duzue, Espainia hautsi gabe. Herriari galdetzearen alde zaude baina ez Espainiatik alde egiteko. Beraz, erabakitze eskubidearen alde bai, baina independentziaren eztabaidatik bereiztuta.

“Dagoeneko aktore garrantzitsu bilakatu gara Euskadin. Protagonista izango gara hurrengo hilabeteetan”

N.A. Estatu mailako alderdia gara eta gure apostua denok eroso egongo garen herrien herri bat eraikitzea da. Baina noski, erabaki hori ez da alderdi batena. Hiritarrek bere herriaren etorkizunari buruz erabaki beharko dute. Galdera egitearen alde gaude. Noski, Espainiatik bereizi nahi duenak ere eskubide osoa dauka Espainiatik bereizteko.

Andoainen eta Urnietan garaile. Zuen emaitza 'koianturala' dela dioenari, zer erantzun zenuke?

N.A. Emaitzak homogeenak dira Euskadi osoan zehar. Indartsua da gure agerpena, ondo errotuta gauden seinale. Podemos ez da indar koianturala, emaitzek hori adierazten digute. Datozen hilabeteetan ikusiko da Madrilen nola egiten dugun lan, baina garrantzitsuak eta protagonistak izango gara zalanarik ez izan.

Herri horietan konfiantza erakutsi dizenari zer esan nahi diozue?

N.A. Estatu mailako alderdi baten emaitza ikusgarria lortu du Euskadin, eta hori euskaldunen interesak Madrilen defendatzeko erabiliko dugula esan nahi diet.

Nola egituratuko duzue alderdia? Zirkuluak osatuko al dituzue?

N.A. Alderdia egituratuta dago, eta zenbait herritan zirkuluak osatuko ditugu. Kanean galdeza ari zaizkigu, gogo hori nabaritzen da eta ahalik eta laguntza gehien ematen ahaleginduko gara. Euskadiko zuzendaritza aukeratzeko primariak deituko ditugu, beti egin izan dugun bezala. Gertu daude, eta deialdi horretara edozein aurkeztu ahal izango da eta edozeinek eman ahal izango du botoa.

Txotx garaiaren irekiera ekitaldia, hilaren 13an

Astigarragako Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, datorren urtarrilaren 13an XXIII. Sagardo Berriaren Eguna 2016 ospatuko dute, txotx bolada berriari hasiera eman eta sagardo berria dastatzen hasteko. Aurtengo

gonbidatua Aritz Aranburu surflaria izango da.

Hernaniko Zelaia sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu egingo du Aritz Aranburuk lehen kupela irekitzean, eta honekin batera, denboraldi berria irekiko da.

Urtarrilean ere deskontuak Salkineko txartelarekin

Abenduan Salkin elkarteak Udalarekin batera aurkeztu zuen "Andoain Txartela"rekin erosketak egiterako orduan %5 eta %10 bitarteko beharpenak eskaini zituzten.

Merkatariek eskaintza hori beste hilabetez luzatzea erabaki dute, beraz, urtarrilaren 31 bitarteko epean erosketak egiten dituenari beharpenak eskainiko zaizkio.

Inauterietako egitaraua finkatzeko bilera Urigainen

Udalak inauterietako konpartsek bere karrozak prestatzen joateko lokala prest du. Egitarauaren zirriborroa ontzat emateko, bestalde, bilera deitu dute datorren astelehene-

rako -urtarrilak 11- iluntzeko 19:00etan hasita Urigainen. Bilera irekia da. Hilabete eskas geratzen da inauterien hasierarako. Otsailaren 4a ostegun gizona izango da.

Brindisa urteko azken elkarretaratzean



Euskal preso politikoen alde, abenduaren 31n ibilaldi isila egin zuten Goikoplazatik Zumea plazaraino. Bertan kan-

delak piztu eta brindisa egin zuten. Gaur egun, nazioarteko espetxeetan Andoaingo bost preso politiko daude.





**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Abenduaren 30ean sutea piztu zen, iluntzean

Ondorio larririk utzi gabe itzalitako sute ikusgarria

SUTEAREN BIDEO IKUSGARRIAK



Aiurrikoak webgunean eta Youtuben ikusgai daude. Hirugarrena, dronarekin grabatuta Vimeo Joroto Drone perfillean ikusgai.

Lehen minutuetako sutearen ikusgarritasuna dela eta, Aiurriko erredakzio batzordea berehala martxan jarri zen. Sare sozialen bitartez zabal-

du ziren lehen informazioak eta irudiak. Sutearen inguruko kontrol lana ezarri zenean webgunean albistea landu zen. Eta biharamunean sutea

izan zen tokian bertan bideo landu genuen. Egun berean dron batetik bideo ikusgarria grabatu zuen Joxan Melo andoaindarrak.



Abenduaren 30eko iluntzean suteak irudi ikusgarriak eskaini zituen.

A benduaren 30ean askoren oroitzapenetan geratuko den sutea izan zen Leizaran haranean, herrigunetik oso gertu. Andoaingo Txistoki zubitik zetozenek sutea herriguneari ia itsatsita zegoela ikus zezaketen. Goiburuko igorretatik edota Allurralde gain base-ri ingurutik ere suak sortutako paisaia ikusgarria zen. Zorionez, ordu gutxira suhiltzaileek kontrolpean izan zuten sutea. Lehortek eta tenperatura altuak tarteko, sutea berehala piztu zen. Ikerketak zabalik dirau, eta ez dago batere garbi nahita piztu zen edo ez. Sutearen berri izan zuten lehen pertsonen arabera, litekeena nahita eragindako sutea izatea. Ikustear dago, beraz, azken ikerketak zer ondorioztatzen duen. Sutea piztu eta berehala suhiltzaileek Tolosako, Goierriko eta Legazpiko brigadak bidali zituzten. Inguru hura oso malkartsua izateaz gain, suhiltzaileei euren tresnariarekin gerturatzea ezinezkoa egin zitzaion.



Abenduaren 31n, sutea gertatu zen erdigunean.

Horregatik lehen unetik lehentasuna inguruko baserri eta etxeetako pertsonen segurtasuna bermatzea izan zen.

SUHILTZAILEEI ETA LAGUNTZAILEEI ESKER ONA

Biharamunean Udalak prentsa ohar bidez esker ona adierazi zien sutea itzaltzen aritu ziren suhiltzaileei eta baita inguruko baserriarrei ere, gertaeren inguruan eskainitako laguntzaga-

tik. Sutea zerk eragin zuen iker-tzen ari direla baieztatu ondoren, informazio berria edukitzean zabalduko dutela adierazi zuten. Poza agertu dute kalte pertsonalik ez zelako izan.

Sare sozialen bitartez, Aiurri gertaeraren unean uneko bozgorailu bilakatu zen eta pertsona asko izan ziren ekimenarekin bat eginez argazkiak eta informazioa partekatu zuten.



Besabi-Leitza irteera urtarrilaren 23an

Inauteriak dira han, eta ibilaldia, dutxa eta bazkariaren ostean, bi aukera egongo dira Urnietara bueltatzeko: 20:30ean eta 04:00etan.



Izaia errekatxoaren gaikaldeko zubitxo, Leitzalarrea.

Zanpatuz mendi elkarteak Leitzarainoko irteerarekin estreinatuko du 2016 urteko egutegia. Pasa den urtean otsailan antolatu zen, baina aurrean aurreratu egin da zertxobait, karnabalak direla-eta (ihoteak Leitzan). Urtarrilaren 23rako da hitzordua, Matxoko autobus geltokian 06:30ean. Handik Besabira igo, lista pasa eta marxa (06:45), Etenetan barrena, Aitzolako iturria, Leitzalarrea eta Leitzaraino.

Ibilbidea zailtasun ertaineko da, 6 ordukoa gutxienez, eta sasoi puntu onean egon behar da. Pasa den urtean elur geruza handia izan zuten bidai lagun mendizaleek, eta horrek asko zaildu zuen bidea. 8 ordu luzera iritsi zen ibilbidea ia. Orain arte hego haizea nagusi izan da erabat Euskal Herrian, baina litekeena da 23rako mendi maldak zurituta egotea.

Behin Leitzan, dutxa bero bat hartzeko aukera izango da bertako kiroldegian, momentuan 3 euro ordainduta. Ondoren, bazkaria antolatu da Harakindegia jatetxean 25 euroren truke. Motxilak alde aurretik eraman nahi dituenak, etxeko lan bat egin behar du: Ikasmin akademian utzi bezperan (Etxeberri plaza), arratseko 17:00ak eta 19:00ak bitarte. Motxila Leitzeko kiroldegian egongo da hurrengo egunean, arropa lehorrarekin.

Urtarrilaren 20an amaituko da izena emateko epea Xauxar eta Kantoi tabernetan, eta Ikasmin akademian

Urnietara bueltatzeko bi aukera eskainiko dituzte antolatzaileek: iluntzeko 20:30ean, mendizaleek bazkal ostean herrian barrena osteratxo txikia egiteko aukera izan dezaten, eta goizaldeko 04:00etan, parranda egin nahi dutenentzat. Izan ere, ihoteetako egun handia da larunbat hori Leitzan, eta Urnietako gazte batzuk mendian ibili ostean parrandarako gogoia izango zutela jakitun, haienentzat ere autobusa prest egongo da goizaldeko 04:00etan, etxera ordu erdixoa bueltatzeko. Itzulerako autobusaren ordua izena ematerakoan zehaztu behar du.

Autobuseko joan-etorriak egiteko hamar euro ordaindu behar dira izen-ematea egiterakoan. Zerrendak Xauxar eta Kantoi tabernetan, eta Ikasmin akademian daude.

ADARRAMENDI

GAUEKO IRTEERA ARRAKASTATSUA

Zanpatuzek Adarramendira gaueko igoera antolatuz itxi zuen 2015. urtea. Abenduaren 26rako antolatu zen eta arrakasta itzela izan zuen. Antolatzaileek zenbatutako datuen arabera, ia 200 lagunek, 195ek, hain zuzen ere, iritsi zuten gailurra. Hainbat umietarrek euren harridura azaldu dute, ilunabar horretan Adarramendin argi askoko ilara ikusten zelako. Zanpatuz elkarteak eskerrak eman nahi dizkie bertaratu ziren guztiei, eta ondorengo ekintzetan ere parte hartzeko deia egin du.

Bazkarira joan nahi duenak ere momentuan ordaindu behar du 25 euroak. Datorren urtarrilaren 20an amaituko da izena emateko epea. Ibilaldia egin eta bazkarira joan nahi ez duenak horretarako aukera izango du. Baita ibilaldia egin nahi ez, edo ezin duenak, eta osteraz bazkarira joan nahi duenak ere.

Igerilariak Ordiziako proban

Buruntzaldea igeriketa taldeko bost Ordiziako Eguberrietako nazioarteko sarian parte hartu zuten. Arratsaldeko finalean, ETB1k zuzenean eskaini zuena, Mikel Esnal 50 eta 100 libreko finalean aritu zen, Iñigo Ibarburu 100 eta 50 tximeleta-

koan eta Nahia Zudaire igeriketa egokituko 50 librean. Jardunaldi hori ETB1 bidez zuzenean jarraitzeko aukera izan zen. Kluba pozik dago, "Orokorrean, gure igerilariak bikain aritu ziren. Eguberrien atarian Gipuzkoako Kopan se-

kulako esfortzua egin ondoren, nazioarteko proban maila ona eman dute. Egia esan, benetan gustura gaude gure nagusiek egindakoarekin. Ea normaltasuna pixkanaka errekuperatu ahala euren markatan aurrera egiten jarraitzen duten".

Leizaran taldearen esker ona



Sari banaketa ekitaldia Allurralden, hamaika partida jokatu ostean.

XV. Errege Eskubaloitxapelketa amaitu ondoren Leizaran eskubaloitaldeak eskerak eman nahi dizkie Allurraldera eta Arratera bertaratu ziren guztiei, "bai eta txapelketa antolatzen lagundu duzuen guztioi: Udala, babesleak, elkarteak, Gurutze Gorria, epaileak eta klubeko kideak. Maila bakoitzeko talde irabazleek kopa bana eta parte hartutako klub guztiek oroigarri bana jaso dituzte

Andoaingo alkate Ana Carre eta Leizaran Eskubaloiko zuzendaritza taldeko kide Manolo Alañaren eskutik. Leizaran E.K.K. oso gustura dago egunaren nondik norakoak ikusirik, txapelketa polita ikusi baita eta gainera harmailera jende dezente gerturatu da. Guzti honek, txapelketa datorren urteetan ere aurrera eramateko eta hobetzen jarraitzeko animo asko ematen dizkigu".

Eguberrietako txapelketa

Abenduaren 26an Urnieta KE eskubaloitaldeak Gabonetako VIII. eskubaloitxapelketa antolatu zuen, infantil eta kadete mailatan. 200 neska-mutil izan ziren parte hartzaileak. Urnietarrez gain, Andoaingo Leizaran eta Orioko, Ereintza, Zarautz, Eibar Eskubaloia, Lei-

zaran, Usurbil... Jardunaldiak 2015 urteari agur esateko balio izan zuen. UKEk eskerrak eman nahi dizkie "bai parte hartzaileei zein txapelketaren antolakuntzan parte hartu zuten jokalariei, entrenatzaile eta zuzendariak; baita txapelketaren kolaboratzaile eta babesleei ere".

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

16. jardunaldia:

Aloña Mendi 4-1 Euskalduna

Sailkapena:

1. Tolosa	38 puntu
12. Euskalduna	18 puntu

17. jardunaldia:

Euskalduna-Elgoibar

Urtarrilak 10.

PREFERENTE MUTILAK

14. jardunaldia:

Hernani 0-1 Urnieta

Sailkapena:

1. Trintxerpe	34 puntu
5. Urnieta	26 puntu

15. jardunaldia:

Urnieta-Roteta

Urtarrilak 10.

Areto futbol txapelketa

ASTEBURUKO PARTIDAK

12. jardunaldia.

Pausoka-Egur

Larunbata, 9. 14:30. Allurralde.

Aure Maiton-Academia

Igandea, 10. 09:00. Arrate.

Ondarreta-Txalaka

Igandea, 10. 09:15. Allurralde.

Ekhia-Ekaintz

Igandea, 10. 10:00. Arrate.

Dad-Keler

Igandea, 10. 10:15. Allurralde.

Drink Team-Centro Extremeño

Igandea, 10. 11:00. Arrate.

OZU-Hogar Extremeño

Igandea, 10. 12:00. Arrate.



SAN SILBESTRE URNIETAN

Lasterketa egonkortu egin da

Parte hartze eta giro politarekin, berrehundik gora lasterkarik parte hartu zuten urte-

ko azken eguneko lasterketan. Lehia aurrealdean izan zen, gainerakoan festa.

1. Axier Martinez 17:22
2. Xuban Ezeiza 17:25
3. Ivan Granada 17:40

1. Leire Larrañaga 22:25
2. Elena Santerbas 22:37
3. Ainhoa Ziaurriz 23:07



Helduen lasterketaren irteera unea. Denera, haur eta heldu, 220 lasterkari bildu zen San Juan plazan.



Lehia aurrealdean izan zen, gainerakoa festa nagusitu zen plazan eta ibilbide osoan zehar.



Iñaki Sorozabalena, mozorro onena.



Axier Martinez izan zen lehena helmugan.



Leire Larrañaga izan zen lehen emakumezkoa.



Mozorrotzeko deialdiak arrakasta handia izaten du Urnietan.



Emakumezkoen parte hartzea handia izaten da.



Haur, gazte eta helduak denak izan ziren ospakizunaren partaide.

Poxta Zahar eta Super H elkar-
teek antolatuta, San Silbestre
lasterketaren III. edizioa burutu
zen Urtezahar arratsaldean Ur-
nietako kaleetan zehar. Herriko
kirolari eta hain kirolari ez di-

renen artean ere dagoeneko
errotuta dago bost kilometroko
lasterketa herrikoia. Guztira,
220tik gora izan ziren urtea
amaitzeko praka motzak jantzi
zituzten urnietarrak, horietatik

145, helduen kategorian. Kirol
apur bat eginez, parte hartzea
eta ondo pasatzea da parte har-
tzaile askoren helburua, eta, as-
ko dira lasterketa mozorrotuta
egiten duten urnietarrak. Mo-

zorrorik onena saritu egiten da,
eta aurtengoan, Iñaki Sorozaba-
len eskuetara joan zen sari
hori, gitarra eta guzti, Isabel
Pantoja imitatzu arratsaldeari
umore punttu berezia ematen

hobekien asmatu zuelako. Eki-
taldi solidarioa izanik, izen-
ematean bildutako dirua, urte-
roko moduan, Super H elkar-
taren helburuak bultzatzeko
erabiliko da.



SAN SILBESTRE ANDOAINEN

Lehen edizioa, ezin hobea

Abenduaren 31 goizean herriguneko kaleak korrikalariz gainezka zeuden, lehen aldiz egin zen San Silbestre lasterketan. 400

laguneko erronka pasata, 414 lagun irten zen. Lehen aldia izateko, kopuru "oso polita" dela uste dute antolatzaileek.

1. Ibai Alba	16:15
2. Ander Lazkano	16:15
3. Aritz Garin	16:46



Ez ziren asko izan mozorrotuta irten zirenak, baina giroa hobetzeko baliagarri izan ziren.



Asier Garitaonandia taldeko gaztetxoekin batera aritu zen lasterka.



Antonio Tenak lasterketaren hasierako itxaferoa piztu zuen.



Eider Vivanco gazteak 400. dortsala eskuratu zuen.



Rakel de Jesus Aiurriko Go pro kamararekin irten zen.



Korrikalari ugari koadrila giroan hartu zuen parte.



Josune Etxezarreta (21:16) eta Ibai Alba (16:15) izan ziren lehen San Silbestre lasterketako irabazleak.

Lasterketa prestatzen aritu diren **Lasterka Itzuli** elkarte berriko kideak pozarren daude, lasterketara espero baino jende gehiago animatu zelako. Andoainen inoiz egin gabeko las-

terketa bat zenez, kopuru zehatza helburu bezala jartzea gehiegitxo eskatzea zela adierazi dute, eta hasiera batean, beldurra bazutela aitortu du **Uxune Tena** antolatzaileak:

"Aurretiko izen ematean, 70 pertsonak bakarrik eman zuten izena. Bagenekien egunean bertan jende gehiago etorriko zela; Zumeatarrak elkarteko gazteak, Gazteleku pilota tal-

dekoak, Euskaldunakoak..., baina ez genuen uste horrenbeste jende animatuko zenik". Oso-oso pozik daude herritarren inplikazioarekin. Babesleek ondo erantzun dute, baita

herriko merkatariek ere: "Jendearen sententzia oso positiboa izan da, baita gurea ere. Honen parte izan diren guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu".

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuek eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URTARRILAREN 8TIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- **"El puente de los espías"**.
Larunbata, 9. 19:30, 22:00.
Igandea, 10. 19:30.
Astelehena, 11. 19:30, 22:00.
- **"El viajero de Arlo"**.
Larunbata, igandea. 17:00.
- **"Heriotzaren triangelua"** ikus-entzunezkoa, Trantsizio garaian eskualdean izandako hilketen ingurukoa.
Asteartea, 12. 19:00.

- Urnietan**
- **"Into the woods"**
16:00, 18:30.
Urtarrilak 10, igandea.

Odol-emaileak

- Urnietan**
- Urteko lehen saioa.
Anbulatorio zaharrean.
18:30-20:30.
Urtarrilak 11, astelehena.
- Andoain**
- Urteko lehen saioa.
Anbulatorioa.
18:30-20:30.
Urtarrilak 13, asteazkena.

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: Diaz.
Urnietan: Aldabe (Hernani).
Urtarrilak 10, igandea.
- Gauez: Urrutia (Hernani).
Urtarrilak 9 eta 10.

Bidaiateka

- Urnietan**
- Saharari buruzko bi ikus-entzunezko: "Egiaren hazia" (30 min.) eta "Oroime-naren lekukoak" (30 min.).
19:00. Gaztelekua.
Urtarrilak 27, asteazkena.

Ikastaroak

- Urnietan**
- 2016ko udaberrirako ikastaro eskaintza prest dago. Informazio gehiago urnieta.eus webgunean eta aste-kari honetan 5. orrialdean.
Izen-ematea:
Urtarrilak 11-22.

Lehiaketa

- Andoain**
- "Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna - 2016" iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egi-ten du Andoaingo Udalak.
Sari bakarra, 350 eurokoa.
Lanak Basteron aurkeztu beharko dira, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
Epea: Otsailak 3.

Irteera

- Urnietan**
- Besabi-Leitza.
Informazioa: 15. orrialdea.
Urtarrilak 23, larunbata.

Inauteriak

- Urnietan**
- Mitologia izango da gai nagusia aurtengo inauterietan.
Otsailak 6, larunbata.
- Andoain**
- Inauteriak prestatzeko bilera orokorra:
19:00. Urigain.
Urtarrilak 11, astelehena.

Batzarrak

- Eskualdea**
- Urnietan. 19:00.
Urtarrilak 26, asteartea.
- Andoain. 19:00.
Urtarrilak 28, osteguna.

Aurkezpena

- Andoain, Bastero**
- "Joxinixio gudaria" liburua-ren aurkezpen ekitaldia. Parte hartzaileak: Peio Esnal, Elixabete Garmendia eta Xabier Lasa.
19:00. Ekitaldi aretoa.
Urtarrilak 14, osteguna.

Hitzaldia

- Andoain, Bastero**
- "Heriotzaren triangelua, es-tatu terrorismoa?", Mikel Aramendi kazetariaren esku-tik.
Antolatzailea: Oroituz.
19:00. Ekitaldi aretoa.
Urtarrilak 18, astelehena.

Urnietako mendi lasterketa

Urnietako Udalak eta SuperH elkartek antolatuta, Urnietako mendi lasterketa V. ediziora iritsiko aurren. Maiatzaren 1ean, igandearekin, egingo da, eta hainbat berrinkuntzekin dator. Horieta nabermentena, irteera eta helmuga puntua, Goiburu auzoko Xoxokatik, herrigunera pasako dela, San Joan plazara, hain juxtu.

Aldaketa honek lasterketa luzatzea ekarri du, eta horrela, las-

terketa motzeko ibilbidea 15 kilometro izatera pasako da, 800 metroko desnibelarekin; eta lasterketa luzearen ibilbidea, 26 kilometro izango ditu, 1.700 metroko desnibelarekin. Lasterketa luzean, 450 atletek izango dute parte hartzeko aukera, eta moztzean 150 atletek. Guztira 600 lasterkerarentzako lekua izango delarik.

Izen emateko epea urte berriarekin batera ireki zen, Kirolpro-

bak.com webgunean, eta erritmo bizian doa, ostegun eguerdirako, 260 lasterkerik bere izena emana baitzuten. Gauzak horrela, parte hartu nahi dutenei izen ematea gerorako ez uztea gomendatzen diete antolakuntzatik.

Nabarmentzekoa da, baita ere, urtez-urte herritarren atxikipen handiagoa jasotzen ari dela mendi lasterketa. Horren adibide garbia da, izen eman dutenen artean jadanik badirela 30 urnietar.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK
Euken Ariztimuño Balentziagak, 6 urte beteko ditu urtarrilaren 10ean. Zorionak! Txokolatzeko muxuak etxekoan partez.	Aranek 3 urte urtarrilaren 2az geroztik. 3 muxu poto-lo, ama, aita, Kimetz, Aratz eta amona labe-lerren parte-tik. Maite zaitugu!	Zorionak Oier 8. urtebetetzean! Ondo, ospatuzure familia eta lagunekin! Enara, amatxo eta aitaxo eta etxeokak.	Elenek 8 urte! Zeinen azkar pasatzen dendenborara... Olen-tzeroren gauaren aurreko oparirik hobere-na! Etxeokak.	Pasa den abendua ren 25ean gure prin-tzesa Aro-ak bere lehenurtea bete zuen. Zorionak eta muxuak etxekoan partetik.
ANDOAIN	URNIETA	ANDOAIN	ANDOAIN	ANDOAIN

ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK
Villabonako Luke Larrañaga Letamendiak 10 urte bete zituen hilaren 30ean. Zorionak, Andoaingo aiton-amonak.	Ze azkar pasatzen diren urteak, berriro abenduak 30! Urteak pasa eta are eta polittago gure prin-tzesa. Milaka muxu Nerewi :)	Duela 3 urte imagina genezake- en loteriarikone-na tokatu zitzaigun zure jaiotza-rekin! Segi horre-la Adei . Maite zaitugu bibixito!!	Kaixo Xune naiz eta 3 urte bete ditut. Lotan eta esna, txokolate-arekin amesten dut. Marrubizko muxuak denentzatzat. Paaa!
ANDOAIN	URNIETA	ANDOAIN	ANDOAIN

Oso erraza da, eta dohainik: diseinua@aiurri.com

MUSIKAZUZENEAN III. JAIALDI

AKUSTIKOA

URTARRILAK 10, IGANDEA, 19:00ETAN NIËSSEN KULTURGUNEAN / ERRETERIA

AMONDAI GONBEZ 10 €

IMANOL CARBALLO AMORANTE JOSU BERGARA ENERITZ FURYAK JON BASAGUREN LIHER	PHYSIS VERSUS NOMOS MIKEL URAKEN LOREA INTXAURRANDIETA OCCHI DI FARFALLA EKIZA GOLIATH
---	---

musika zuzenbide.com

77 OARSO MUSIKA

KULTURA